

emakumeen TXOKOA



AZPEITIKO JABETZE ESKOLAK (2022EKO UDABERRIA)

ESCUELAS DE EMPODERAMIENTO DE AZPEITIA
(PRIMAVERA DEL 2022)

Azpeitiko Jabetze Eskolen helburua, emakumeei beren burua eta bizitzaren jabe izateko tresnak eskaintzea da. Eskola, maila pertsonalean eta kolektiboan indartu, elkarrekin ikasi, errealitateari ikuspegi feminista batetik begiratu eta gure parte-hartze soziopolitiko handitzen lagunduko digun topagunea da.

Gipuzkoako Jabetze Eskolen Sareko kide gara 2010. urteaz geroztik. Prestakuntza eskaintza anitza eta parte hartzailea osatzeko, emakumeen proposamenetatik eta parekidetasuna bultzatzeko lan-ildoan lanketatik abiatzen gara.

Gure eskolan parte hartzera animatu nahi zaituztegu, jendarte parekideago baterako bidea elkarrekin egin dezagun!

IZEN EMATEA

Izena emateko epea: urtarrilaren 17tik 28ra.

Non izena eman?

Azpeitiko Emakumeen Txokoan. Goiko Kale, 12 behe.

943 15 70 55 | 688 751 000 | emakumetxokoa@azpeitia.eus

INSCRIPCIÓN

Fecha de inscripción: del 17 al 28 de enero

¿Dónde?

En la Casa de la mujer. Goiko Kale, 12 bajo.

943 15 70 55 | 688 751 000 | emakumetxokoa@azpeitia.eus

OHARRAK

Hurtzaindegi-zerbitzua eskainiko da taldea osatzen bada. Zerbitzua behar izanez gero, izena ematerakoan adierazi.

Se ofrecerá servicio de guardería en el caso de que se cree un grupo. En el caso de necesitar el servicio, indicarlo a la hora de rellenar la inscripción.

IKASTAROAK ETA TAILERRAK

CURSOS Y TALLERES

1.- ZORU PELBIKOA LANTZEN | TRABAJANDO EL SUELO PÉLVICO

Emakumeok, bizitzan zehar, gure zoru pelbikoan eta gure ongizatean eragina duten hainbat egoera bizi ditugu: erditzea, hormona gorabeherak, lanean jardutea, kirola praktikatzea, pisuak hartzea eta abar. Honelako ekintza bakoitzeko gure zoru pelbikoa ahuldu egiten da eta gune horretako muskulazio guztia indartzea da ikastaroaren helburua.

Formatzailea: Saioa Baena

Hizkuntza: euskara

Noiz: otsailaren 4tik apirilaren 8ra

Ordutegia: ostiraletan 11:00etatik 12:30etara

Iraupena / Prezioa: 10 saio, 15 ordu / 22,5€ langileek (15€ langabetu eta ikasleek)

2.- GURE ETXEAN BURUJABE. Etxearen eta gorputzaren zaintza ekologikoko ikastaroa | AUTOSUFICIENTES EN NUESTRO HOGAR. Curso sobre cuidados ecológicos del cuerpo y del hogar.

Gure arbasoek, bereziki emakumeek, bazekiten nola sortu etxean beharrezkoak ziren produktuak. Bada ordua, emakumeok belaunaldiz-belaunaldi transmititutako jakintza hori konpartizeko. Ikastaro honetan, etxeko egunerokotasunean erabiltzen ditugun zenbait produktu, garbikari, sendagai natural... eta abar egiten ikasiko dugu. Baita sendabelarrekin prestaketak egiten ere. Menpekotasunarekin hausteko eta burujabe izateko tresna ezberdinez ordituko gara.

Formatzailea: Aiora Urbieta Eizagirre

Hizkuntza: euskara

Noiz: otsailaren 3tik apirilaren 7ra

Ordutegia: ostegunetan, 17:00etatik 19:00etara

Iraupena / Prezioa: 10 saio, 20 ordu / 30€ langileek (20€ langabetu eta ikasleek)

3.- MENOPAUSIA: HAUSNARTZEKO UNEA | MENOPAUSIA: UN MOMENTO PARA LA REFLEXIÓN.

Tailer hau gure bizitzako bigarren etapa, heldutasuna, modu sortzaile eta aberasgarrian bizitzen prestatzeko pentsatuta dago, irudi eta bizimodu aldaketei aurre egiten ikasiz eta geure burua zaintzen ikasiz.

Era berean, menopausian gertatzen diren aldaketak ezagutuko ditugu, zalantzak eta beldurrak desagertu eta geure bizitzaz modu kontzientean ahaldundu ahal izateko.

El taller está pensado para prepararse a vivir la segunda etapa de nuestra vida, la etapa de la madurez, de una forma creativa y enriquecedora, aprendiendo a afrontar los cambios de imagen y de forma de vida, y aprendiendo a cuidar de nosotras mismas. También vamos a conocer sobre los cambios que se atraviesan durante la menopausia para poder desvanecer las dudas y miedos y empoderarnos de forma más consciente de nuestra propia vida.

Formatzailea: Pepa Bojó

Hizkuntza: gaztelera | castellano

Noiz: martxoak 29tik maiatzak 31ra | desde el 29 de marzo hasta el 31 de mayo.

Orduetgia: asteartetan 18:30etatik 20:00etara | los martes de 18:30 a 20:00

Iraupena / Prezioa: 8 saio, 12 ordu / 18€ langileek (12€ langabetu eta ikasleek) | 10 sesiones, 15 horas / 22,5€ trabajadoras (15€ desempleadas y estudiantes).

4.- AUTODEFENTSA ZIBERFEMINISTA (30 urte arteko neska eta emakumeei zuzenduta) | AUTODEFENSA CIBERFEMINISTA (dirigido a mujeres y chicas menores de 30)

Autoefentsa tailer hauen bitartez, autozaintza eta indarkeria matxistaren jatorria landu nahi dugu, hau gertatzea ahalbidetzen duten faktore desberdinak aztertuz eta harreman osasuntsuak nola sor ditzakegun ezagutuz. Gainera espazio digitalean feminismoak bizitzeko aukera eta irizpideak ikusiko ditugu.

Formatzailea: Jone Zalduegi

Hizkuntza: euskara

Noiz: martxoak 4

Orduetgia: ostirala 17:00etatik 20:00etara

Iraupena / Prezioa: doan



5.- ZUGANDIK (40 urtetik gorako emakumeei eskainitako formazio-tailerra) | ZUGANDIK (curso-formación dirigido a mujeres mayores de 40)

Idoiaren 40etan bizitako esperientzia pertsonalean jaiotzen da. Non, haustura profesional eta pertsonalak nor zen eta zer nahi zuen hausnartzera eraman zuten. Inguruko emakumeekin partekaterakoan, barne galdera antzekoak ditugula konturatu zen, baina barnealdean utziaz, gureak bakarrik direla uste dugu, aldaketarako aukera ez eskainiaz. Zugandik tailer formazioan, emakume bakoitzaren hitza entzun, elkarrekin partekatu, sostengatu eta azaleratua izango da. Irudi-argazkia sormen elementua euskarri bezala sortuaz eta aztertuaz. Zaintza, sormen, elkar euste eta emakumeek adierazitako beharrak landuko diren espazio eta denbora eskainiko da.

Formatzailea: Idoia Telleria

Hizkuntza: euskara

Noiz: apirilaren 11tik maiatzaren 30era

Ordutegia: astelehenetan 18:00etatik 20:00etara

Iraupena / Prezioa: doan

6.- MENDI ORIENTAZIOA | ORIENTACIÓN EN EL MONTE

Emakumeon artean mendizaletasunak gora egin du azken urteetan, baina askotan beste batzuek gidatuta edo lagunduta egiten ditugu mendi irteerak. Ikastaroan, guk geuk erabakitako lekura autonomia osoz joateko ibilbideak diseinatzeko ikasiko dugu, baita baliabideak eta gaitasunak eskuratu ere. Mendian segurtasunez ibiltzeko orientazioko oinarrizko ezagutza teoriko-praktikoak jasoko eta landuko ditugu. Horretarako, mapa eta iparrorratza erabiltzen ikasten jarraituko dugu era praktiko batean.

Formatzailea: Patri Espinar

Hizkuntza: euskara

Noiz: maiatzak 20 (ostirala) eta maiatzak 21, 28 eta ekainak 4 (larunbatak)

Ordutegia: ostiralean 17:00etatik 20:30era eta larunbatak 9:30etatik 14:00etara

Iraupena / Prezioa: 4 saio, 17 ordu / 25,5€ langileek (17€ langabetu eta ikasleek)

*Ikastaroan izena emateko, beharrezkoa izango da mendian 3-4 orduz ibiltzeko gai izatea eta ikastaroko saio guztietara joateko konpromisoa hartzea. Horrez gain, beharrezkoa izango da mendiko botak eta motxila eramatea ikastarora.

IKASTARO KATEA “FEMINISMO ANITZAK: ZAINZAK, SENTIMENAK ETA SEXUALITATEAK

PROCESO DE TALLERES “FEMINISMOS DIVERSOS: CUIDADOS, SENTIRES Y SEXUALIDADES”

Jabetze Eskolen barruan, Lumaltik Herriak elkartearekin elkarlanean hiru ikastaro labur antolatu ditugu | Hemos organizado junto a la asociación Lumaltik Herrián tres talleres breves dentro de la Escuela de empoderamiento:

7.- GORPUTZA, NATURA ETA KOMUNITATE-FEMINISMOA | CUERPO, NATURALEZA Y FEMINISMO COMUNITARIO

Lurraldearen eta lurraren defentsari buruzko tailer hau Maya herriaren antzinako ezagutza eta jakintzei lotuta dago. Saiok feminismo komunitarioari, gorputzari, naturari eta agroekologiari buruzko azterketa teorikoaren zati bat eta zati praktiko batetaz osatuta egongo da.

Este taller sobre defensa del territorio-tierra está vinculado a los conocimientos y saberes ancestrales del pueblo Maya. La sesión consistirá en una parte de análisis teórico y una parte práctica sobre feminismo comunitario, cuerpo, naturaleza y agroecología.

Formatzaileak: Isabel Hernández y Jesica Marroquín

Hizkuntza: gaztelera | castellano

Noiz: apirilak 30 | 30 de abril

Orduetgia: 10:00etatik 14:00etara | de 10:00 a 14:00

Iraupena / Prezioa: doan | gratis

8.-ONDO BIZITZEKO AUTO-ZAINZAZA | AUTO-CUIDADOS PARA EL BUEN VIVIR

Gure gizartearen sexismoa genero estereotipo eta roletan islatzen da, gizonak eta emakumeak plano berezietan kokatzen gaituztelako. Ordaindutako lanetan antzeko denbora ematen duten arren, ez da gauza bera gertatzen lan erreproduktiboetan, etxeko lanetan eta mendekotasuna duten pertsonak zaintzean, nagusiki emakumeen gain daudelako lan hauek. Bi kontzeptu garrantzitsu daude denboraren erabileraz ari garenean: presentzia bikoitza eta lanaldi bikoitza. Hauen inguruko kontzientzia hartze bat eta hausnarketarako gunea izango da.

El sexismo de nuestra sociedad se refleja en los estereotipos y los roles de género, que sitúan a los hombres y las mujeres en planos diferenciados. Si bien dedican un tiempo similar al trabajo remunerado, no sucede lo mismo en el caso de las tareas reproductivas, de cuidado del hogar y de las personas dependientes, que siguen recayendo fundamentalmente sobre las mujeres. Existen dos conceptos importantes cuando hablamos de usos del tiempo: doble presencia y doble jornada. Crearemos un espacio para una toma de conciencia y reflexión sobre estos conceptos.

Formatzaileak: Saioa Hernández

Hizkuntza: gaztelera | castellano

Noiz: maiatzak 7 | 7 de mayo

Orduategia: 10:00etatik 14:00etara | de 10:00 a 14:00

Iraupena / Prezioa: doan | gratis

9.-SENTIPENAK ETA SEXUALITATEAK | SENTIRES Y SEXUALIDADES

Emakumeen sexualitateari buruzko errealitatea tabuz, estereotipoz eta aurreiritziz betea dago. Gure sexualitateaz askatasunez gozatzea, sexu identitate eta orientazio guztientzat, giza eskubideen kontua da. Tailer honen helburua historikoki, sozialki eta maila indibidualean, emakumeen desiraren deuseztapenez eta ukapenez hausnartzea, errekonozitzea eta eztabaidatzea da eta horrek gure gorputzetan eta ongizatean duen eraginaz ohartaraztea.

La sexualidad de las mujeres es una realidad tabú, negada y cargada de estereotipos y prejuicios. El libre disfrute de nuestra sexualidad, para todas las identidades y orientaciones sexuales es una cuestión de derechos humanos. Este taller pretende reflexionar, reconocer y debatir sobre la negación histórica, social e individual, del deseo de las mujeres y su impacto sobre nuestros cuerpos y bienestar.

Formatzailea: Natalí Bejarano Castro

Hizkuntza: gaztelera | castellano

Noiz: maiatzak 14 | 14 de mayo

Orduategia: 10:00etatik 14:00etara | de 10:00 a 14:00

Iraupena / Prezioa: doan | gratis

JABETZE ESKOLETAN IZENA EMATEKO FITXA

FICHA DE INSCRIPCIÓN PARA LAS ESCUELAS DE EMPODERAMIENTO

Izena / nombre Abizenak / apellidos

Jaioteguna / fecha de nacimiento NAN / DNI

Helbidea / dirección

Herria / población P.K. / C.P.

Aurrez parte hartu al duzu Jabetze Eskoletan?
¿Has participado anteriormente en las Escuelas de Empoderamiento? BAI / SÍ
 EZ / NO

Emakumeen Txokoko ekintzen berri izan nahi duzu?
¿Te gustaría recibir información sobre las actividades de la Casa de la Mujer? BAI / SÍ
 EZ / NO

Nola? / ¿Cómo? Whatsapp Korreo elektronikoz / por correo electrónico

(Ekintzen berri Whatsapp-ez izateko, bidaliko dizugun lehen mezuko telefono zenbakia zure agendan kontaktu bezala gorde beharko duzu, eskerrik asko) / (Para recibir la información mediante Whatsapp, tendrás que guardad el teléfono del primer mensaje que te mandaremos en tu agenda, gracias)

2021ko en (e)an / el de del 2021

Sinadura / firma:

Markatu X batekin izena eman nahi duzun ikastaro edo ikastaroetan / marca con una X:

- | | |
|--|---|
| <input type="radio"/> 1- ZORU PELBIKOA | <input type="radio"/> 5- ZUGANDIK |
| <input type="radio"/> 2- KOSMETIKA NATURALA, ETXEKO GARBIAKARI EKOLOGIKOAK ETA SENDABELARRAK | <input type="radio"/> 6- MENDI ORIENTAZIOA |
| <input type="radio"/> 3- MENOPAUSIA: HAUSNARTZEKO UNEA | <input type="radio"/> 7- GORPUTZA, NATURA ETA KOMUNITATE-FEMINISMOA |
| <input type="radio"/> 4- AUTODEFENTSA ZIBERFEMINISTA | <input type="radio"/> 8- ONDO BIZITZEKO AUTO-ZAINTZA |
| <input type="radio"/> 9- SENTIPENAK ETA SEXUALITATEAK | |

Eragozpen fisikorik baduzu? Funtzionalitate anitzeko gairik?
¿Tienes alguna discapacidad? BAI / SÍ EZ / NO

Zein motatakoa? / ¿de que tipo?

Haurtzaindegi zerbitzurik behar duzu?
¿Necesitas servicio de guardería? BAI / SÍ EZ / NO

Lege oharra: Hemen jasotzen diren datuak fitxategi batean sartuko dira, gero Jabetze Eskolako Ebaluazio Programan aztertzeko. Azpeitiko Udalak bermatzen du datuak ez zaizkiola Jabekuntza Eskolako ez den inori emango. Datuak zuzentzeko, ezabatze-ko eta parekatzeko eskubideak erabili ditzake haien titularrak, datuak babesteko legerian ezarritako terminoetan. Era berean, erabiltzaileak bere datu pertsonalak tratatzeko eta lagatzeko eskubidea atzera bota dezake edozein unetan, atzerako eraginik gabe, Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko Europar erregelamenduak ezarritakoa dela bide.

EMAKUMEEN TXOKOKO ZERBITZU, EKIMEN, TAILER IRAUNKOR ETA JARDUERA ANITZAK (2022KO UDABERRIA)

SERVICIOS, INICIATIVAS, TALLERES PERMANENTES Y ACTIVIDADES MÚLTIPLES

Emakumeen Txokoa Azpeitiko emakume, gizon zein pertsona ororen arteko parekidetasuna sustatzeko tresna da. Herritar guztiei irekita dagoen espazioa da, guztiei zuzendua.

Benetako berdintasuna lortzeko ibilbidean, emakumeen ahalduntzeari eta autonomiari indarra eman, esperientzia eta ekarpenak elkartrukatu, proposamenak egin eta kolektiboki eragiteko espazioa da.

HARREMANETARAKO / CONTACTO

Izena emateko epea: ikasturte osoan edo tailerrean adierazten den bezala.

Fechas de inscripción: durante todo el curso o en la fecha indicada para cada taller.

Non eman behar da izena: Emakumeen Txokoa. Goiko kale, 12 behea.
943 15 70 55 | 688 751 000 | emakumetxokoa@azpeitia.eus

Dónde inscribirse: En la Casa de la Mujer de Azpeitia.


Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.
Udako ordutegia (ekain erdi eta uztaila): astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara.

Horario: De lunes a viernes de 9:00 a 13:00 y de 16:00 a 19:00.

Horario de verano (mitad de junio-julio): de lunes a viernes de 9:00 a 14:00.

emakumeen txokoaan parte hartuz,
denok irabazten dugu! Zatoz!

Participando en la casa de la mujer,
ganamos todxs! acercáete!





PARTE-HARTZE, SENTSIBILIZAZIO ETA INTEGRAZIORAKO EKIMENAK

ACCIONES DE PARTICIPACIÓN, SENSIBILIZACIÓN E INTEGRACIÓN

Parekidetasuna bultzatzeko mota anitzetako ekintzak antolatzen ditugu; hitzaldiak, kultura-jarduerak, tailerrak, zinema-emanaldiak... Publiko zabalari, pertsona orori irekita dauden ekimenak dira (hala aipatzen ez bada, behintzat).

AMATASUNETIK EMAKUMEAK AHALDUNTZEN

Amatasuna, historian zehar, emakumea mendean hartzeko baliatu dute, garairik garai. Beste alor batzuetan, feminismoari esker, ahalduntzea lortu badugu ere, amatasuna oraindik, neurri handi batean, zintzilik dugun gaia da. Esparru honetan ere emakumeok hausnartu, partekatu eta ahaldundu behar dugu, zaintza erdigunean jarri bai, baina amatasuna sanoago eta bizigarriago egiteko. Ezagutzaren transmisioa garrantzitsua da horretarako: Zer esan dute autore feministek amatasunaz? Zein da amatasunaren historia? Amatasuna politizatu behar dugu eta emakumeak mendeko egiteko erabili izan duten tresna izatetik, emakumeok ahalduntzeko tresna bilakatu behar dugu.

Hizlaria: Ainara Gorostizu Muxika

Hizkuntza: Euskara

Eguna eta ordutegia: otsailak 9, 18:30ean

Lekua: Azpeitiko Emakumeen Txokoan

INDARKERIA OBSTETRIKOAZ

Azken aldian, indarkeria obstetrikoa terminoa askoren ahotan ibili da, eta errealitate hau eztabai-dagai izatera ere iritsi da. Osasun zentroetan haurdunaldi, erditze eta erditze ostean emakumeek jasotzen duten tratu eta une horietan egiten diren praktikak barnebiltzen ditu kontzeptu honek. Emakumearen aurkako indarkeria-mota gisa deskribitu den indarkeria honen elementu garrantzitsuenak ikusteko aukera eskainiko dugu, gai honen inguruko zertzelada batzuk emanaz.

Hizlaria: Irati Aizpurua Alquezar

Hizkuntza: Euskara

Eguna eta ordutegia: martxoak 30, 18:30ean

Lekua: Azpeitiko Emakumeen Txokoa

GENERO DISIDENTZIA ZK

Generoaz asko hitz egin da azken urteotan, eta teorizazio ezberdinak sortu diren arren, sare sozialek eta generazio berriek generoa ezbaian jartzeko bestelako forma batzuk ekarri dituzte. Maskulinitatea alternatiba bat ez bada, orduan zer? identitateaz, kategorizazioaz, performanceaz eta aliantzetaz.

Hizlaria: Iñigo Etxezarreta Toca

Hizkuntza: euskara

Eguna eta ordutegia: apirilak 6, 18:30ean

Lekua: Basazabal jauregia



LIBURU AURKEZPENA "RESETEA TU VIDA"

| PRESENTACIÓN DEL LIBRO: "RESETEA TU VIDA"

Nerea Astigarragarekin, Azpeitiko bizilagunak, idatzi duen "Resetea tu vida" liburuaren inguruko solasaldia izango dugu. Liburuan, bere garapen pertsonalaren prozesu propioa kontatzen du, nahasmendu bipolarra diagnostikatu ondoren, bizitza bizigarriagoa izateko bere egunerokotasunean txertatu dituen tresna eta erreminta desberdinak partekatuz.

Solasaldian, osasun mentalaren errealitate soziala ikusarazteaz gain, gaixotasun hauek pairatzen dituzten pertsonak desestigmatizatzeke eta ikuspegi zabalagoa sustatzeko hausnarketarako espazioa eraikiko dugu.

Tendremos una charla con la autora del libro "Resetea tu vida", Nerea Astigarraga, vecina de Azpeitia. En el libro, relata su propio proceso de reinención personal tras ser diagnosticada de Trastorno Bipolar. Comparte en el libro, todas esas herramientas que le han servido para ganar calidad de vida.

Durante la charla, además de visibilizar la realidad social de las enfermedades mentales, también crearemos un espacio en el que reflexionar sobre cómo desestigmatizar a las personas que sufren de dichas enfermedades y promoveremos una mayor amplitud de miras.


Hizlaria: Nerea Astigarraga

Hizkuntza: gaztelera / en castellano

Eguna eta ordutegia: maiatzak 11, 18:30ean | 11 de mayo, a las 18:30

el 24 de noviembre, miércoles, a las 18:30

Lekua: Azpeitiko Emakumeen Txokoa / En la Casa de las Mujeres de Azpeitia



IKASTARO IRAUNKORRAK ETA PARTE HARTZE TALDEAK

TALLERES Y GRUPOS DE PARTICIPACIÓN

1- IRAKURRI ETA AHALDUNDU

Ainhoa Aldazabal Gallastegui naiz. Euskal filologiako ikasketak egin nituen eta paradoxikoki irakurtzeari utzi nion. Skolastika ezagutu nuenean berreskuratu nuen irakurtzeko gogoia, plazera eta zaletasuna. Bi pasioren uztarketak eman dit ofizioa: literaturak eta feminismoak.

Formatzailea: Ainhoa Aldazabal Gallastegui

Hizkuntza: euskara

Noiz: ostegunetan, hilean behin: otsailak 24, martxoak 24, apirilaak 28, maiatzak 19 eta ekainak 16.
Ordutegia: 17:30etik 19:30era

Iraupena / Prezioa: 5 saio, 7,5 ordu / 11,25€ langileek (7,5€ langabetu eta ikasleek)

*Izena emandakoan, harreratik pasa liburura jasotzera.

2. ENPALABRAMIENTO

Honako hau, gaztelera ikastearen bitartez, emakumeen ahalduntzerako gaitasunak lantzea eta hauen arteko sareak eraikitzeke espazioa da. Alfabetizazioan eta gaztelaren oinarrizko mailetan zentratua badago ere, taldekideen behar eta maila konkretuetara moldatuta, eduki anitzak lantzen dira. Horrez gain, kolektiboan lan egiteko eta elkarrengandik ikasteko baliabideak eskaintzen dira.

Este, es un taller formativo de español, habilidades personales y funcionales para el empoderamiento de las mujeres. Aunque esté centrado en la alfabetización y nivel básico de castellano, se adapta constantemente a las necesidades y niveles del grupo, trabajando de esta manera diversos temas. Además, se ofrecen herramientas para trabajar en colectivo y aprender las unas con las otras.

Formatzailea: Nerea Del Campo

Hizkuntza: gaztelera / en castellano

Noiz: astelehenetan eta asteazkenetan / los lunes y los miércoles

Ordutegia: 10:00etatik 12:00etara / de 10:00 a 12:00

Prezioa: doan / gratuito

*Parte-hartzeko izena eman beharko da.

Hay que inscribirse para poder participar.

**Izena emateko aukera ikasturte osoan zehar dago.

Es posible inscribirse en cualquier momento del curso.

PARTE HARTZE GUNEETAN IZENA EMATEKO FITXA

FICHA DE INSCRIPCIÓN EN LOS GRUPOS DE PARTICIPACIÓN

Izena / nombre	Abizenak / apellidos
Jaioteguna / fecha de nacimiento	NAN / DNI
Helbidea / dirección	
Herria / población	P.K. / C.P.
Posta elektronikoa / Correo electrónico	Tlf. / Tlf

Aurrez parte hartu al duzu Jabetze Eskoletan? BAI / SÍ
¿Has participado anteriormente en las Escuelas de Empoderamiento? EZ / NO

Emakumeen Txokoko ekintzen berri izan nahi duzu? BAI / SÍ
¿Te gustaría recibir información sobre las actividades de la Casa de la Mujer? EZ / NO

Nola? / ¿Cómo? Whatsapp Korreo elektronikoz / por correo electrónico

(Ekintzen berri Whatsapp-ez izateko, bidaliko dizugun lehen mezuko telefono zenbakia zure agendan kontaktu bezala gorde beharko duzu, eskerrik asko) / (Para recibir la información mediante Whatsapp, tendrás que guardad el teléfono del primer mensaje que te mandaremos en tu agenda, gracias)

2021ko en (e)an / el de del 2021

Sinadura / firma:

Markatu X batekin izena eman nahi duzun ikastaro edo ikastaroetan / marca con una X:

1- IRAKURRI ETA AHALDUNDU

2- EMPALABRAMIENTO

Eragozpen fisikorik baduzu? Funtzionalitate anitzeko gairik? BAI / SÍ EZ / NO
¿Tienes alguna discapacidad?

Zein motatakoa? / ¿de que tipo?

Hurtzaindegi zerbitzurik behar duzu? BAI / SÍ EZ / NO
¿Necesitas servicio de guardería?

Lege oharra: Hemen jasotzen diren datuak fitxategi batean sartuko dira, gero Jabetze Eskolako Ebaluazio Programan aztertzeko. Azpeitiko Udalak bermatzen du datuak ez zaizkiola Jabekuntza Eskolako ez den inori emango. Datuak zuzentzeko, ezabatze-ko eta parekatzeko eskubideak erabili ditzake haien titularrak, datuak babesteko legerian ezarritako terminoetan. Era berean, erabiltzaileak bere datu pertsonalak tratatzeko eta lagatzeko eskubidea atzera bota dezake edozein unetan, atzerako eraginik gabe, Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko Europar erregelamenduak ezarritakoa dela bide.

ZERBITZU ETA BALIABIDE FEMINISTAK

SERVICIOS Y RECURSOS FEMINISTAS

Genero berdintasuna bermatzeko eta parekidetasunaren balioekin bat egiten duten zerbitzu ugari ditugu inguruan. Azpeitiko parekidetasun arlotik bereziki, hainbat zerbitzu kudeatzen dira eta horien inguruko informazio eta sarbidea eskaintzen da Emakumeen Txokotik. Zerbitzuak, KONFIDENTZIALAK, PROFESIONALAK ETA DOAKOAK dira.


HARRERA ETA INFORMAZIOA / RECEPCIÓN E INFORMACIÓN

Emakumeei zuzendutako zerbitzuei buruzko informazioa. Indarkeria matxista kasuetarako zerbitzuen informazioa. Protokolo eta jarraibideen aholkularitza. Herriko parekidetasunerako baliabideen informazioa. Izen emateak. Gela eskaerak. Hitzorduak...

Información general sobre servicios para mujeres. Información sobre casos de violencia machista. Asesoramiento para protocolos y pautas de actuación. Información sobre recursos de igualdad del pueblo. Inscripciones. Peticiones de aulas. Citas...

Noiz? Emakumeen Txokoko ohiko ordutegian

Non? Emakumeen Txokoan



GUNE INFORMALA / ESPACIO INFORMAL

Liburutegi feminista / Biblioteca feminista

Kontsultarako gunea / Espacio para consulta

Berdintasun gaietan murgiltzeko interneterako sarbidea /

Acceso a internet para introducirse en temas de igualdad

Saretzeko eta egoteko gunea / Espacio para estar y crear redes

Noiz? Emakumeen Txokoko ohiko ordutegian

Non? Emakumeen Txokoan

*Galdetu harreran

LIBURUTEGI FEMINISTA / BIBLIOTECA FEMINISTA

Liburu kontsultak / consultas de libros

Liburu maileguak / préstamos de libros

Ikus entzunezkoen maileguak

Noiz? Emakumeen Txokoko ohiko ordutegian

Non? Emakumeen Txokoan

*Maileguak harreran



ERREMINTA MAILEGUA / PRÉSTAMO DE HERRAMIENTAS

Etxeko lan txikiearako erreminta maileguak /
préstamo de herramientas para trabajos pequeños del hogar

Noiz? Emakumeen Txokoko ohiko ordutegian

Non? Emakumeen Txokoan

*Maileguak harreran

AHOLKULARITZA JURIDIKOA / ASESORAMIENTO JURÍDICO

Dibortzioak / Divorcios

Emakumeen kontrako erasoei buruzko prozesu penalak / *Procesos penales en casos de agresiones contra las mujeres*

Dibortzio prozesuetatik sortutako gatazkak / *Conflictos generados de los procesos de divorcios*

Mantenu pentsioen ordainketa ezak / *Impagos de pensiones alimenticias*

Bisita erregimenen ez betetzeak / *Incumplimientos de regímenes de visita*

Atzerritartasunarekin lotutako arazoak / *Extranjería*

Etxeko langile zein gainerako langile emakumezkoen kaleratzeak /

Despidos trabajadoras del hogar y demás trabajadoras

Diskriminazioa / *Discriminación*

Eskubideei buruzko infomazioa / *Información sobre derechos*

Laguntza sozialak / *Ayudas sociales*

Bestelako kontsultak / *Otras consultas*

Noiz? Hilean bi ostegunetan

Non? Emakumeen Txokoan

Nork? Garazi Plazaola eta Macarena Mugica abokatuek.

*Aurrez hitzordua hartu behar da 688 751 000 telefonora deituta

**Hitzordura ezin bada azaldu, abisatu 48 ordu lehenago, gutxienez

SEXU AHOLKULARITZA: PLAX! / ASESORAMIENTO SEXOLÓGICO: PLAX!

Emakume eta gizonek, bakarka edo konpainian, sexu eta bikote zailtasunak izaten dituzte bizitzako garai desberdinetan. Horiei irtenbidea eman, jakin-minari erantzun eta genero estereotipoetan oinarritutako harreman sexualak gainditzeko zerbitzua da hau.

Las mujeres y los hombres, sea solos o en compañía, tienen dificultades sexuales y de pareja en las distintas etapas vitales. Este es un servicio que intenta darles herramientas a esas dificultades, dar respuesta a las curiosidades y ofrecer información para superar las relaciones sexuales basadas en los estereotipos de género.

Non? Sindikatu Zaharreko 2. solairuan

Nork? Edurne Mendizabal (Arremanitz elkarteko sexologoa)

*Aurrez hitzordua eskatu behar da 688 89 79 20 telefonora deituta

** Online bidezko kontsulta egiteko aukera

